

# UDA KULTURAZ BLAI 2021

## Hemen da aurten ere UDA KULTURAZ BLAI

lazkoa urte berezia izan zela gauza jakina da, testuinguru horretan Durangok kulturaren aldeko konpromiso sendoa abiatu zuen. Uda osoan zehar programazioa zabala eskaini zen. Programa arrakastatsua gauzatu, oso harrera ona izan baitzuten emanaldiek, tailerrek eta baita bisitek ere.

Arrakasta eta babes horri eutsi gura diogu aurten ere, kulturak aberasteaz gain, gozamina, elkartzeko aukera eta topatzekoak eskaintzen dizkigu-eta.

Uda Kulturaz Blai ekainaren 26an hasiko da eta abuztuaren 28an amaituko da, astero-astero durangarrek ekitaldietan parte hartzeko aukera izanik.

Durango udaz gozatzeko aukera eskaini nahi dugu, kalitatezko programazio anitzari eskainiz. Era guztietako 25 ikuskizun izango dira, era guztietako ikusleentzat. Baita txikienei zuzendutako 28 sormen tailer ere.

**Doako saioen eskaintza zabala. Anitza eta kalitatezkoa, 10 kontzertu, 6 dantza emanaldi, 4 antzezlan, 3 zirko saio eta 2 arratsalde Mambo Bingo umoretsuz.**

Aipatzekoa da Durangoko sortzaile eta artisten parte hartze zabala, askok gainera, euren lan berriak aurkeztuko dituztelako.

- Kriskitin Dantza Taldea
- Virgen Del cisne
- Bagara kolektiboa
- Durangoko Orfeoia
- Licenciado Vidriera
- Ganso & Cía

# UDA KULTURAZ BLAI 2021

- Jhonger Zambrano
- Peioa eta Itsua; Gunflow eta Itsua

Aniztasunak definitutako programa aurkezten dugu. Anitzak direlako parte hartzaileak eta anitzak direlako eskainiko diren ikuskizunak ere.

Kementsu hasi berri diren Ibil Bedi, Idoia edota Bagara dantza kolektiboa bezalako talde berriekin batera oso artista konsagratuak batuko direlako, besteak beste, Hector Alterio antzezlea eta Jose Luis Merlín musikaria, edota Barsanti antzerki taldea “Legea gu gara” lana aurkeztuz.

Anitzak dira eskainiko diren emanaldiak ere, besteak beste, Cadizeko Chicharrón Circo-k flamenko-zirkoa uztartzen dituen pieza aurkeztuko du; Madrileko Tartana taldeak baskula gaineko akrobaziak egingo ditu, eta Kataluniako Electrico28 taldeak maskara antzerkia eskainiko digu, era guztietako ikusleentzat.

## IKUSKIZUNAK

### MUSIKA

- ✓ **Durangoko Orfeoia** – Joseph Haydn-en Nelson meza kantatuko du Izadi Ensemble orkestraz lagunduta eta Imano Gamboa eta Bidane Txopitea bakarlariekin batera.
- ✓ **Licenciado Vidriera** – Mariano Estudillo aktorearen azken musika proiektura Nerea Aizpurua biolontxelo jotzailea batu da. Indi folkaren barruan joera berriak arakatzen ari dira, oinarri barrokoari Urrezko Mendeko klasikoen kutsua txertatuz eta oholza gainean poesia, bapatekotasuna eta umorea barra-barra zabalduz.

# UDA KULTURAZ BLAI 2021

- ✓ **Deabru Beltzak “Diberti dantza”** – plaza osoa hankaz gora jarriko du familia osoarentzako musika, jolas eta dantza saioarekin. Kantatzen duen herria ez da inoiz aspertuko!.
- ✓ **Ibil Bedi “Beltxarga Beltza”** – Baxoa, bibolina, saxoa, bateria, teklatuak eta ahotsez osotutako talde nafarra. 2019 “Berandu baina garaiz” lehen lana kaleratu ondoren, orain, “Beltxarga Beltza” bigarren diskoa aurkeztera datoz. Bestek beste maitasuna, zalantzak, galerak eta bizipenak hartzen dituzte gaitzat. Popa nagusitzen bada ere beste estilo batzuetako eragina nabari da.
- ✓ **Jhonger Zambrano “Expuesto”** – Venezuelan jaioa. *Cuatro*-arekin, bertako musika tresna tradizional batekin, sartu zen musikaren munduan, eta gitarrarekin hasi zen gero. “Expuesto” bere lehen diskoa Euskadirekin lotzen duen zubia da. Estilo definiturik ez badu ere popa, rocka eta baladaren artean dabilela esan genezake.
- ✓ **Bulego** – euskarazko POParen azken iraultza BULEGO deitzen da. Euskal Herriko musika munduan astindu duen taldea. Azkoitiko boskotearen zuzeneko indartsuak dantza jarriko ditu zahar eta gazteak. Baina lan honekin dantzazaleak ez direnak ere gozatuko dute, musika maila bikainekoak direlako.
- ✓ **Idoia “Ilun eta abar”** – Aramaioko (Araba) kantari gazte honen arrakasta ahoz ahoak sortutako da. Izan ere, oraindik diskorik kaleratu ez badu ere Sold Out txartela eskegi du Jazzaldia, Chillida Leku Museoa, Donostiako Festibala, edota Tabakalera kultur gunea bezain plaza esanguratsuetan. Donostiako Muir estudioan grabatutako “**Ilun eta Abar**” diskoa aurkeztera dator.

# UDA KULTURAZ BLAI 2021

- ✓ **Hip Hop Jaia . Beat Salad Records** – Durangoko diskoetxe independentearen festa. Hip-hopa eta musika elektronikoa sustatzea dute helburu. Saio honetan Peio eta Itsuak “Jostailua eta Harria” lana aurkeztuko dute, eta Gunflown eta Itsuak euren datorren lanaren aurrerapen bat eskainiko digute. Amaitzeko DJ gonbidatuak ere izango dira.

## DANTZA

- ✓ **Kriskitin dantza taldea** – Tabirako jai batzordeak antolatuta.
- ✓ **Virgen el Cisne** (Ecuador) - Tabirako jai batzordeak antolatuta.
- ✓ **Bagara kolektiboa “i(n)tera(k)zio Laborategia”**- Dantza garaikidea eta ikus-entzunezkoen gaineko behaketa eta inprobisazio laborategiaren estreinua. Ane Gabilondo, Uribarri Atxotegi, Maider Etxegibel eta Aritz Lasarguren durangarrek osotzen dute taldea.
- ✓ **Moveo Danza “Echoes”** (Cataluña) – Echoesek modu ludiko eta ironikoan gogorarazten ditu gure artean dauden indibidualtasunahia eta loturak/interdependentziak, antzerkia, dantza eta akrobazia nahasten dituen lengoia propio fisiko sakonetik, esperientzia kolektibo bat sortuz.
- ✓ **Cía Input “Imperfectas”** – Aiala Etxegarai euskal koreografo "imperfectas" ren eskutik, epaiketarik gabeko espazio bat sortzeko nahitik sortu zen, akatsa bertan behera utziz. Bizi garen gizartearen barruan, denek partekatzen dute bat bera izateko ezintasuna besteen aurrean.
- ✓ **LaRutan “Out of the blue”** – Maria Andres euskal koreografoaren eskutik, dantzatzeko, mugitzeko eta egunerokotasunarekin hausteko beharretik sortutako pieza fresko eta dibertigarri hau aurkeztuko dute.

# UDA KULTURAZ BLAI 2021

## ANTZERKIA

- ✓ **Electrico 28 “Full house” (Katalunia)** - Testurik gabe eta antzerki fisikoaren eta zuzeneko musikaren bidez, Koala, Dog Horse eta atez ate bizi diren bizilagunen istorioa kontatzen du Full Housek. Maskara antzerkia, zuzeneko musika eta soinuekin, familientzat.
- ✓ **Hector Alterio & José Luis Merlín “Cómo hace 3000 años...” (Madrid)**- Gizakia, borroka, askatasunaren maitasuna eta nortasuna dira protagonistak. 91 urterekin bere buruaz eta erbestealdiaz hitz egiten du Leon Felipe poetaren hitzen bidez.
- ✓ **Cía BarSanti “Legea gu gara”** – Juanjo Otero eta Aritza Rodriguez izango dira Sergio eta Erramun. Umorea eta egunerokotasun soziala kaleko antzerkiko ikuskizun honetan.
- ✓ **Hortzmuga Teatro “Al fin del camino”**- Bidearen amaieran, aita bat eta haren semea ditu protagonista; urteetan elkar ikusi gabe egon ondoren, Alzheimerren gaixotasunak aitaren bizitza menderatzen duen eta Drag Queenen ibilbide profesionalak semearena definitzen duen une berezi batean aurkitzen dira.

## ZIRKOA

- ✓ **Chicharrón circo Flamenco “Sin Ojana” (Cadiz)**- Chicharronek, flandestar dinastia baten azken katebegiak, familiaren flamenko haitza gordetzen duen gurdia dakar, non flamenkoaren erritmoak eta konpasak malabareekin fusionatuko dituen. *Sin Ojanak* gezurrik gabe esan nahi du, hipokresiarik gabe.
- ✓ **Hutsun + Ortzi “Urbasa”** – Mikel Urrutia eta Anai Gambrak osatutako Hutsun txalaparta taldea eta Ortzi akrobata 2019an elkartu ziren Urbasa sortzeko. Akrobaziak eta txalaparta.
- ✓ **Trocos Lucos “Tartana” (Madrid)** - Koreako baskularekin egindako esperimentazioaren inguruan garatzen da. Mugimendu horretan oinarrituta, proposamenak aniztasun akrobatikoari dagokionez

# UDA KULTURAZ BLAI 2021

eskaintzen diren aukerak zuketzen ditu, eta berrikuntzarako eta teknika tradizionalaren erronketarako aukera gisa baliatzen ditu.

- ✓ **GERTU FEST** Artisau-produktuen azoka, tailerrak, giro ona eta bingo bat Ganso & Cía taldearen eskutik, umore ona barra barra.

## LEKUAK

### **Kalea gune segurua:**

5 parke erabiliko ditugu

Aurora Abasolo, Benita Uribarrena, Ezkurdi, Tabira eta Plateruenako terraza.

*Eguraldi txarrarekin:* Landako Gunea, Kurutziaga ikastola eta San Agustin kultur gunea.

## TAILERRAK

Umeei zuzendutako tailerrak izango dira eta uztailean eta abuztuko lehenengo astean zehar egingo dira. Helburua adin eta jakingura ezberdinak asetzeko moduko eskaintza luzatzea da. Tailerrak banan banakoak izango dira eta leku gorde behar izango da parte hartzeko.

Berrikuntza gisa **musikaz familian** gozatzeko tailerrak aurkezten ditugu, 0-36 hilabete bitarteko umetxoei eta euren familiei zuzendutakoak. Parte hartzaileak musikarekin modu natural eta aktiboan harremanetan jartzea bilatzen da. Saio bakoitzean errezitalak eta metrika kantak erabiliko dira. Familiek euren txikiekin dantzatu, kantatu, mugitu eta jolasteko aukera izango dute.

# UDA KULTURAZ BLAI 2021

Era honetan lortzen da helbururik garrantzitsuena, umea musikarekin gustura senti arazteko bidea lantzea, musika entzunaz eta interpretatuz bere egunerokoan. Helburu nagusia musika adimena lantzea baita.

**4 eta 12 urteko umeentzat ere beste 4 tailer** antolatuko dira. Tailer hauetan musika sortu, bizi eta gozaten da. Ahotsa lantzeko abestiak eta ahots jokoak erabiltzen dira, baita, Dalcroze teknikak oinarritutako koreografiak ere. Orff Perkusio musika tresna txikiak joaz esperimentatzen da (kutxa txinatarrak, kriskitinak, marakak,...); baita boomwhackers erako hodi doinudunak, egurrezko koilareak eta beste baliabide mordo bat,...

**5 eta 7 urte arteko umeentzako tailerrak** Regoyosen lana eta Puntillismoa ezagutzeko. Durangoko Arte eta Historia Museoak antolatuta.

Museoaren zeregina funtsezkoa da ezagutza plastiko hori txikienei transmititzeko. Aurtengo udako tailerrak funtzio horrekin pentsatu dira, haurren sentsibiltate artistikoa areagotzeko. Dario de Regoyos pintore asturiarraren erakusketa oinarri hartuta, bere biografiaz ikasteaz gain, inpresionismoa identifikatu eta bere teknikak, puntillismoa kasu, bereganatzeko aukera izango dute.

**7 eta 12 urteko umeentzako sormen tailerrak.** Bizenta Mogel Bibliotekaren eskutik.

“Uda Kulturaz blai” programazioan Bizenta Mogel Bibliotekak proposatutako tailerren oinarria hitza da; hitza erabiliko dugu sormenaren bitartez disziplina ezberdinetan sakonduz, ikasi eta disfrutatzeko. Ordu bi inguruko saioetan, talde murriztuetan, eta Benita Uribarren parkean, eskulanak, antzerkia, koadernaketa edo istorioak sortzen ibiltzeko aukera egongo da.

Gainera, abuztuan zehar Arte eta Historia Museoak **2 bisita gidatu** antolatuko ditu bertako Historia aretoan zehar, heldui zuzendutakoak.